


Bitaminak bai, bitaminak ez

Uste ustelak nonahi aurki daitezke; zailantzarik gabe, bitaminek gabezi guztiak osatzeko balio dutela dioena zabalduenetakoa da gaur egun. Frantzian jadanik ohartu dira arrisku horretaz eta zenbait osasun-erakundek burutu duen txostena ontzat ematekotan, zenbait bitamina eskuratzea zaila izango da benetan, merkatuan saltzea galerazi nahi dute eta.

Jakina da bestalde, bitamina guztiak ez direla berdinak. Mineraletan oso aberatsak diren substantziak dosi altuegitan kontsumitzeko moduan merkaturatzen direla eta, osasun publikoarentzat oso kaltegarriak direla ohartarazi dute. Bereziki selenio-, zink- eta fluor-kantitate

handiak dituzten konposatu bitaminikoak jo dituzte arriskutsuztat eta horiexek ageri dira "debekatzeko modukoak" diren substantzien zerrendan. Dosi txikiagotan hartuz gero arazo saihes badaiteke ere, medikazioa modu jarraian emateak ere arrisku larriak sortzen dituela hartu behar da kontutan. Horri dagokionean, C bitaminaren gain-dosiak sortzen dituen osasun-arazoak aipatu dituzte txostenean, baina ez da zientzilarien artean adostasunik lortu. Bitaminen aldekoek eta kontrakoek elkarri mokoka aritzeko aitzakia biribila aurkitu dute, nonbait. Frantzian ezarri nahi den debekuak Europa osora zabal dezake bitaminen inguruko eztabaida. Gaitzerdi, gaur egun batere eztabaidatu eta arrisku potentzialez ohartu gabe kontsumitzen baititugu bitaminak.

C bitaminaren gain-dosiek eragiten dituzten kalteak handiak omen dira. Horixe aztertzen dihardu Frantziako ikerlari-talde batek eta zenbait konposatu bitaminiko merkaturatzea debekatzeko eskatu dute.



Azken ikerketen arabera, arthritis erreumatoidearen sintomak arintzerik badago. Horretarako, haurdunaldian zehar gertatzen diren aldaketa hormonalak berriro egin behar izan dira laborategian. Txerto-modura injektaturiko substantzia horrek itxaropen berriak piztu ditu.

Haurdunaldia eta artritis

Artritis erreumatoidearen sintomak arintzea eta gaixotasun kroniko horren agerpenik bortitzena moteltzea ez da jadanik ameskeri hutsa. Philadelphiako Jefferson Osasun Erakundeko ikerlari-talde batek iragarri duenez, emakumeek haurdunaldian zehar berez lortzen duten defentsa-mekanismoak laborategian berritzean datza aurkikuntza berriaren gakoa. Izan ere, haurdunaldian zehar arthritis erreumatoidearen sintomak era naturalez gutxiagotu egiten direla ikusi dute ikerlariak eta horren arrazoa fetuaren bilakaeran zehar ematen diren aldaketa hormonalean dagoela uste da. Azterbide horren berri beste batzuetan ere ka-

leratu izan da. Seattle-ko Minbiziaren kontrolerako Ikerketa Zentruan 1993an iragarri zuten, artritisak jotako emakumea haurdunaldian zehar "kutsatu gabeko" zelulak transmititzen dizkio fetuari eta ondorioz, gaixotasunari aurre egiteko bitartekoak ematen dizkio. Batek dago fenomeno horretaz baliatzerik? Philadelphian baietxean daude eta, "kutsatu gabeko zelulak" erabiliz, txertoaren funtzioa beteko lukeen substantzia ekoiztu dute. Substantzia hori injektatu egiten da eta bost bat hilabete irauten du tratamenduak. Orain arte, 10 emakumerekin burutu da saio hori eta horietarik zortziren kasuan, arthritis erreumatoidearen sintomak gutxiagotu egin ziren.

